


SARETIK ZURERA



ZURE DONAZIOA, BESTEEN ITXAROPENA

EGILEAK: Uxue Redondo Fernandez, Israel López Ruiz,
Yamina Chebicheb Benabbou eta Luz Marina Moreira González.



SARETIK ZURERA, ZURE DONAZIOA, BESTEEN ITXAROPENA

Saretik Zurera proiektua martxan jarri eta arrakastatsua izan dadin, beharrezkoa da hainbat baliabide izatea. Baliabide horiek dira gure balio-proposamena garatzeko, bezeroengana iristeko, haiekin harremanak izateko eta zerbitzua modu eraginkorrean eskaintzeko oinarria.

Baliabide fisikoak

Proiektua aurrera eramateko, lehenik eta behin baliabide fisiko egokiak behar dira. Funtsezkoa da **biltegi edo espazio fisiko bat** izatea Gasteizen, soberan dauden produktuak jaso, sailkatu eta banatzeko. Espazio horrek aukera emango digu elikagaiak, arropa edo bestelako produktuak egoera onean mantentzeko eta behar duten erakundeei modu antolatuan helarazteko.

Horrez gain, **garraio-baliabide bat** beharrezkoa da. Furgoneta edo antzeko ibilgailu baten bidez produktuak dendetatik edo enpresetatik jaso eta elkarreetara edo banaketa-guneetara eramango dira. Garraiorik gabe, proiektuak ez luke eraginkortasunik izango.

Azkenik, soberakinak **sailkatzeko eta antolatzeko materiala** ere behar da, hala nola apalak, kaxak edo etiketak. Horrek lanaren antolaketa erraztuko du eta banaketa azkarragoa eta seguruagoa izatea ahalbidetuko du.

Baliabide intelektualak

Saretik Zurera proiektuaren oinarrietako bat harremanak eta ezagutza dira. Horregatik, funtsezko baliabide intelektualetako bat da **markekin, dendekin, elkarreekin eta erakunde publikoekin dugun harreman-sarea**. Kontaktuen bidez soberakinak identifikatu eta benetan behar dituztenengana bideratu ahal izango ditugu.

Bestalde, **komunikaziorako tresnak eta ezagutza** ezinbestekoak dira. WhatsApp Business, Gmail edo antzeko plataformen bidez, harreman azkarra eta zuzena mantentzen da markekin eta erakundeekin. Horrek erantzun azkarra ematea ahalbidetzen du, gure proiektuaren ezaugarri nagusietako bat dena.

Era berean, proiektuaren balio soziala azaltzeko eta ezagutarazteko **oinarrizko marketin-ezagutzak** behar dira, bai erakunde publikoen aurrean bai gizartearen aurrean ere. Horrek lagunduko du proiektua sendotzen eta lankidetzak berriak sortzen.



SARETIK ZURERA, ZURE DONAZIOA, BESTEEN ITXAROPENA

Giza baliabideak

Saretik Zurera lau pertsonaz osatutako talde txiki batek bultzatzen du. Talde horren konpromisoa, antolaketa eta elkarlana dira proiektuaren indargune nagusietako bat. Taldekide bakoitzak bere eginkizuna du, kontaktuak, logistika, antolaketa eta banaketa bezalako arloak estaliz.

Horrez gain, une jakin batzuetan **boluntarioen laguntza** ere beharrezkoa izan daiteke, batez ere soberakin kopuru handiak jasotzen direnean edo banaketa handiak egin behar direnean. Giza baliabide hauek funtsezkoak dira lana arintzeko eta proiektuaren eragina handitzeko.

Gainera, beste elkarte eta erakundeekin elkarlanean aritzeak giza baliabideen sarea handitzea ahalbidetzen du, eta horrek proiektuaren jasangarritasuna indartzen du.

Laburbilduz, lau pertsona konprometituen talde sortzailea (Uxue, Israel, Yamina eta Luz Marina). Gizarte-elkarteetako boluntarioak eta laguntzaileak. Dirulaguntzei edo laneratzeko programei esker kontratatutako langileak.

Finantza-baliabideak

Proiektua martxan jartzeko eta mantentzeko, **finantza-baliabideak** ere beharrezkoak dira. Hasierako gastuak estaltzeko, hala nola garraioa, biltegia edo material logistikoa, diru-laguntzak edo laguntza publikoak funtsezkoak dira. Gasteizko Udalak eta beste erakunde publiko batzuek gizarte-proiektuetarako eskaintzen dituzten laguntzak aukera garrantzitsua dira. Diru laguntzak hainbat motatakoak izan ahal dira (instituzionalak eta finantziarioak): diru laguntza publikoak (udaletakoak, foralak, europarrak), hitzarmenak erakunde pribatuekin (Gurutze Gorria, Caritas, supermerkatuak, arropa-dendak), udalen eta gizarte-zerbitzuen laguntza eta Europako funtsak (ESF+, ERDF, NextGeneration).

Finantza-baliabide hauei esker, Saretik Zurera proiektuak modu eraginkorrean funtzionatu ahal izango du, soberakinak aprobetxatuz, kontsumismoa murriztuz eta kolektibo zaurgarrien oinarritzko beharrei erantzuna emanez.

INFORMAZIO ITURRIAK

- TuLibroFP
- STARTInnova
- Canva